



EZAGUTZAREN GIZARTEA
LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO
LA SOCIÉTÉ DE LA CONNAISSANCE

Hiritarren parte-hartzerako foroak
Foros de participación ciudadana
Forums pour la participation citoyenne

2017.07.04
(Bergara. Laboratorium Museoa)
10:00 17:00
Toki mugatua / Aforo limitado / Capacité limitée
943 31 08 55



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



Gipuzkoako Foru Aldundia

NAHI DUGUN GIZARTEA, IZANGO DUGUN GIZARTEA EZAGUTZAREN GIZARTEA – BERGARAKO FOROA (2017.07.04)

JOSÉ LUIS LARREAREN SARRERA HITZALDIA

Berriki doktoretzaduna den José Luis Larreak “Ezagutzaren Gizartea?” izeneko hitzaldia eskaini zigun. Bertan, egungo testuinguruaren berri eman zigun, haren joera (Garapen teknologikoa, Globalizazioa eta Abiadura) eta arriskuekin (Azalkeriaren iruzurra, burbuilen xarma hordigarria eta ergelkeriaren gorespena), zeintzuek ondorengo ezaugarri nagusiak dituzten agertokiak marrazten dituzten:

- Konektibitatea (guztiena guztiarekin eta guztiarena guztiarekin)
- Irisgarritasuna (guztiena eta guztietara = globalizazioa)
- Mugikortasuna (sakelako telefonoa, tabletak etab.)
- Datuak osatu eta maneiatzeko gaitasuna (Big Data)
- (dena gertatzen den) Abiadura

Era berean, ezagutza (edo informazioa) eraldatzailea izan, eta aurrerapen sozial eta ekonomikorako baliagarria suerta dadila proposatu zuen. Horretarako, ezagutza eraldatzailearen zein ikasketaren sortze prozesuak deskribatu zituen. Eta “ezagutza eraldatzaile” kontzeptuaren zenbaterainokoa eraldaketa prozesu pertsonal (banakakoa) eta soziala (kolektiboa) sortzen duen ezagutza bezala definitu zuen

Orobat, ezagutza eraldatzailearen sortze prozesuak ondoz ondoko fase multzoak direla argitu zuen, zeintzuen ondorioz, hauetan parte hartzen duten pertsonen, lan kooperatiboa eginez, ezagutza jakin bat sortzen duten, hauen eta ezagutza eraikitzen den errealitatearen gainean eraldaketa gertatzen delarik.

Inplikaturako eraldatze-prozesuen tipologia, dimentsio eta erakunde-profila, egitura eta kudeaketa eredu desberdinak eta ezagutza, ikaskuntza eta berrikuntzaren harremana bezalako auzien inguruan pentsarazi zigun

Azkenik, Larrea jaunak, bere aburuz, egungo gizartearen erronka handienetarikoa den paradigma aldaketa proposatu zigun:

“Lehen mailako erronka baten aurrean gaude, izan ere, paradigma mentala aldatu behar dugu lurralde/espazio paradigma batetik paradigma arrazional batera igaroz”

EUSKARAZKO TALDEA (din. Koro Muro Arriet)

Parte-hartzaileak:

Juliette Bergouignan

Urkiri Salaberria

José Luis Larrea

Oihana Zamponi

José Antonio Villar

Arantxa Ugartetxea

Maitena Urmeneta

ZER DA EZAGUTZA?

- Orainaldian etorkizunari aurre egitera laguntzen duen iraganeko indarra (mugimendua)
- Gauzez jabetu; ezagutza ikaskuntzaren fruitu bezala (fluxua da)
- Praktikari beti harreman duta, eta beti elkarbanatua, transmisio eta baita porrotaren fruitu.
- Ezagutza galdera betiereko eta iraunkor bezala; bizitzaren bidetik topatuz goazen guztia
- Bizitzaren ezagutza zalantzatik dator, nor bere buruari galdetzetik
- Besteak hezi eta besteei irakastea
- Gauzak definitzeko ahalegin dinamikoa da
- Errealitatearen inguruko analisi ahalmena eta hura komunikatzeko gaitasuna (behatzaile eta kritikoa izanda)
- Ezagutza errealitatearen analisi elkarbanatua egiteko subjektu batek duen gaitasun bezala
- Errealitatea aztertzen eta komunikatzen duen elkarbanatutako fluxu dinamikoa

Taldeak adosturiko definizioa:

**EZAGUTZA ERREALITATEAREN BILAKETA KONTZIENTE ETA
ELKARBANATUA DA**

EZAGUTZAREN DINAMIKAK NOLA lantzen, balioztatzen, igotzen, ikasten, kontserbatzen, hedatzen... den

- Kogenerazioaren (elkarrekintza) eta transakzioaren bitartez
- Zalantzarik Gabe, pedagogiaren bitartez
- Kogenerazioa + “elkarrekintza”
- Ezagutza eraldatzailea izan behar da (nire burua eta besteak eralda ditzala), bestela ez du balio

ETORKIZUNEAN, ZER-NOLAKO GAILU EDO ERAGILE BEHAR IZANGO DITUGU EZAGUTZAREN GIZARTEARI AURRE EGITEKO?

Zer ikasketa-prozesu lehenetsi behar ditugu hori lortzeko?

- Zein izan behar da ezagutzaren eragina? Pentsaera kritikoa hedatzea, kontatzen digutena ez onartzea

- Prozesu honek agenteei eragiten die, batez ere. Tartean dauden eragileak honako hauek dira:

- PERTSONAK
- Unibertsitatea, ikerketa eta ezagutza zentroak
- Enpresak (era zabalean)
- Instituzio Publikoak
- “Gizarte Zibila”

- Hezkuntza-sistemak (unibertsitateak) paper nagusia jokatzen du:

- Ikasten irakasten du: elkarbanatutako ikaskuntza dakarren formakuntza duala (ENPRESEKIN partekatutako konpromisoa)
- Ikertzen irakasten du: modu eraldatzaile eta ekintzailean

Aldaketa sakon bat beharrezkoa da ikasketa eta ikerketa ereduetan; tartean dauden eragileak euren burua eraldatzeko gai izango al dira? Edo, eragile berriak sortu beharko dira?

-Zaharren eta gazteen arteko harremana sustatzea ezinbestekoa da. Belaunaldiarrekotasuna oinarritzkoa da.

-Pertsonak bere konfort eremuetatik atera behar dira, gogoeta eragitea eta pentsaraztea

- TOPALEKUA: edozein leku izan daiteke ezagutza lekua

- ELKARRIZKETA (“mintzairatzea”) sustrai matrizerara iristeko

Ekintza eta esperimentaziorik irakatsiz eta heziz: horretarako, aukera berdintasuna eta informaziora eta hezkuntzara iristeko aukera bermatu beharko lirateke

- Ezagutzak ondorio sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak ditu, horrenbestez, kanal horien bitartez igorri beharko litzateke.

GAILUAK

Formakuntza eta ikerketa zentroak

Enpresak

Ehun asoziatiboa

Instituzioak



BITARTEKOAK (NOLA)

Guztionezko hezkuntza eta informazioa

Adierazpen askatasuna

Hizkuntza aniztasuna (hizkuntza eskubideak)

Ezagutza, jakin-mina, ikaskuntza munduko edozein lekutan badaudela azpimarratzen da, nahiz eta ekonomiarekin eta aukera berdintasunarekin berdina ez gertatu. Puntu honetan, testuinguratzeko beharra azaltzen da, gure erantzukizunak gure gain hartuz eragin dezakegun eremuan ekiteko beharra.

EZAGUTZAREN GIZARTEAREN DEFINIZIOAK

- Gizarteak landutako gogoeta
- Utopia bat da: baina pertsona guztientzako aukera berdintasuna eta hezkuntza proposatuko lituzkeen gizartea izango litzateke
- Une bakoitzean, ikaskuntzaren gizartearen proiektzioa
- Guztionezko tresna eta aukeren hedapena
- Errealitatearen inguruko ezagutza eta informazioa aurkitu eta elkarbanatu nahi dituen gizartea da
- Ikaskuntza eta hedapena aurrerapenerako ezinbestekotzat jotzen dituen gizartea da, kogenerazioa (elkarrekintza) eta trukea erraztuz

GAZTELERAZKO TALDEA (din. Jean-Michel Larrasquet)

Parte-hartzaileak:

- Livio Riboli-Sasco
- Arantxa Ibarrola
- Javier Otazu
- Hélène Lion
- Michel Ferillot
- Xabier Apaolaza
- Angel Arbonies
- Jean Roch Guiresse
- Nicanor Ursua
- Jean Pierre Claveranne
- Jon Altuna

ZER DA EZAGUTZA?

Ezin diogu auzia gure buruari ikuspuntu ekonomizista batetik bakarrik planteatu, gizabanakoa zein erakundeak aurrerapen hertsiki ekonomiko batentzat arrazionalizatzeraz bideratutako ikuspuntu batetik, hain zuzen ere. Esfera sozialetara, kulturaletara (imajinarioak) etab. zabaldu behar da espektroa (hau unibertsitateari berdin aplikatu dakioko). Badakigu bide ekonomizistak porrot egin duela, hala bere bertsio marxistan nola neokapitalistan.

Ezagutza betidanik existitu izan den giza jarduera da (kultura, esperientzia, teoria, frogaturiko (froga, Platon) eta benetako sinesmenen bila. Arlo epistemologikoan, ondo dago ezagutzaren informazioa bereiztea (honek barne elaborazio batera birbidaltzen gaituen heinean), eta ekintzak ekintzen irudikapenetatik banatzea.

Legitimazio- eta frogatze-funtzioek (gizarte-ingurunean) jarduteko ahalmena eta jokaera eraldatzaileak aipatzen dituzte.

Arrazoibide zientifikoaren bitartez (zehaztasuna, metodoa, sistematizazioa...) “meta-ezagutza” sortzen da. Hala ere, ezagutza “unibertsala”-rekin batera, ezagutza pertsonal eta lokaltzat izan behar dugu.

Objektibotasunean, baina baita ere sormenean eta “gerorako balio”-en eraikuntzan oinarritutako nonahiko berrikuntza ez dugu ahazten ere ez. Ezagutza eraldatzailearen ideia interesgarria da, balioei eta politikari lotuta. Ez dugu (ezagutza eraldatzailearen ideia) erlijioaren auzitik ere banandu behar.

Gizartearen eraldatzailea den unibertsitatearen ideia interesgarria da, unibertsitate sortzailea, ekintzailea... bide luzea daukagu oraindik!

Gure garaian, “ezagutzaren gizartea”-z singularrean hitz egitea ez da zuzena: gizarte guztiak dira/izan dira ezagutzaren gizarteak. Gure gizartearen berariazkoa den hori definitu behar dugu. Baliteke banaketa, espezializazioa edo profesionalizazioa ezagutza (jakin baten) ekoizpena bereizten duena izatea. Bestela, gaur egun transmisio belaunaldien aurrean “eserita” gaude. Neurri batean, gure aurretikoa den guztiak “egiten” gaituela onartu beharra dugu. Ezagutza eta ikaskuntza hurbildu behar ditugu, ia berdina baitira. Gizarte-ikuspuntua batetik, transmisioaren auzia zentrala da. Erronka bat da egun!

Gaur egun banaketa hau artikulatzen den bezala zalantzan jartzea zaila, baina beharrezkoa da. Baliteke gure gizartearen bereizgarri den hori lehiakortasuna biziagotzea eta abiadura izatea: besteak baino lehen ikasi behar dugu, besteak baino azkarrago, badaude “presio” sozial gehiago eta lehiakortasunekoak.

Ezagutzaren zabalkundea da aldea markatzen duena (Stuart Mill). Orain balioetsitako ezagutza gaitasuna da. Gaur egun, ziurgabetasunerako, zalantzarako... esparru bat da falta dena. Nola sortzen da ezagutza? Pertsona askok, unibertsitario, ikertzaile eta adituez gain, galdera onak proposatzen dituzte (baita erantzun onak ere, zalantzarik gabe). Gurasoek, irakasleek... ere bai! Nola erabiltzen da ezagutza balioa sortzeko? Zer-nolako balioa aipatu beharra dugu?

Digitalaren gizarteak “dena baimentzen” du, onena zein okerrena! Etengabeko “gaindosi” baten aurrean gaude! Horrenbestez, gazteak euren bidea topa dezaten prestatu behar ditugu, erreferente kognitiboak, gaitasunak... gara ditzaten.

Zenbait ohitura sozio-kognitibo alde batera utzi, suntsitu, behar ditugu, hain zuzen ere, ideologiak idealetarantz labaindu, iragankorretik gizatiarrerantz... “mugikorra” eskutan dugun gizarte onetan: zer galdera proposatu behar dizkiogu gure buruari?

Filosofian, ezagutzak bi ikuspegitara birbidaltzen gaitu:

- Hizpide dugun horrek errealitatearen batekin egiten al du bat (bere aldetik ezagutza anitzetara birbidaliz)?
- Subjektu ezagutzailea bere ezagutzarekin aldatzen ote da?

Ezagutza gure pentsatzeko era da (ezagutza pertsonala [afektibotasunak, emozioek, uste sendoek, balioek... markatutakoa], ezagutza kolektiboa). Ekonomia, kultura, gizarte-ekintza: dena konektatuta dago eta nahasten da. Unibertsitateari dagokionez, liberalizazioari, birloturari (“religancia”), eta mundu subjektiboari garrantzia emateari deigarria da.

Enpresa munduari dagokionez, Nonaka eta Takeuchiren lanek (batez ere) ezagutza sortzeko aurrera eramandako prozesuak esplizitatzen dituzte. Ekintzari lotutako ezagutza dialektiko batez ari gara hemen: errealitatea prozesuen bidez sortzen da (konstruktibismo erradikala). Mendebaldean, objektibizatze, dokumentatzeko, pertsona, giza faktorea eta alderdi

emozionalak alboratzeko joera dago. Ezagutza /Ezagutzaile(cognoscente)/errealitate kiribila (bucle) zatiezina da.

“Garun kognitibo”-an, neuro-epistemologian (batez ere ispilu-neuronak, “arrazional/irrazional”-en esanahia), “meta-ezagutza”-n eta azaldutako gaien alderdi sozial eta politikoetan (batez ere botereari dagokionez) interesa jarri behar dugu. **Ezagutzaren esanahia ekiteko ahalmena da, hortaz, esperientzia, gizarte eraldaketa etab. bezala ulertu behar da.** “Science Shops”-en adibidea proposatzen da, non ezagutzen garapena sistematikoki ekintzarekin harremantzen den. Ikuspuntu honen arabera, ezagutza eta ekintza ez dira batu behar, prozesu proaktibotzat hartu baizik: hor sortzen baitira ezagutza konplexu/elkarbatu eta kooperatiboak. Ezagutzak ezin dira kudeatu (prozesu kognitiboak dira!), baina testuinguruak kudea daitezke, mesedegarriak izan daitezen: testuinguru hauek intereserako, (“story-telling”) kontakizun komuneren erakuntzarako erabilgarriak izango lirateke. Hierarkia gutxikoak izango lirateke, botere harremanen arabera ez antolatua, entzutean, errespetuan, besteen adimenean, huts egiteko eskubidean... oinarritutakoak baizik. Aipatutako testuinguruek funtziona dezaten (“Ba” japoniar kontzeptuan kokatzen gara), itzultzaile eta bitartekari independenteak beharrezkoak dira. Egun, ez dago ogibide horietara zuzenduriko lanbide-heziketarik!

Beste eztabaida bat jakite-profanoen ingurukoa da: gaitasunari balio handiegia ematen dion gure gizarteak baztertu egiten ditu (osasun arloan, adibidez). Jakite-Profanoak birgaitu behar dira, ekitearekin harremanduriko jakiteak bezala (ekintzailatza, empresa...). Era orokorrago batean, jorrotutako gaietan adituak ez diren pertsonen “begiradak gurutzatzea” beharrezkoa da.

Ezin da jomugen auzia, nahitasunarena saihestu: ikasteko, eraldatzeko, berrizteko ezagutzak garatzearekin ados gaude, baina, nora iristeko? Erantzuna ezin da hazkundera edo garapen ekonomikora mugatu. Gizarte-ongizatea, gizarte-harmonia, ingurugiroarekiko eta kulturekiko errespetua bezalako ideiak integratu behar ditugu.

Dakigunaren estatusari lotutako eztabaidak ere ateratzen dira (Varela eta Maturanako lanak, batez ere “enakzio”-aren ingurukoak), baita irudikapen mental, giza-garunen izaera ez programagarria eta konstruktibismoaren auzi epistemologikoari buruzkoak (eztabaidak sortzen dituenak!) ere. Baina ados jartzen dira gure ezagutzaren estatusari erlatibotasuna emateko, baita, era berean, dakigun hori azaltzeko gai ez garela.

Egun, gutxi erabiltzen diren zientzia kognitiboek beste era batean, era adimentsu batean, hala hezkuntzan nola enpresan aurrera egitea baimendu beharko lukete (kooperazio forma berriak...). Ezagutzaren kontuan “Erlazional”-aren auzia zentrala da, bai ezagutza sakon eta operazionala nahitaez kooperatiboa, elkarlanekoa, kolektiboa delako, bai ”badakien” horrek (edo bere burua jakituntzat duen horrek!) “ez dakien” beste hori baino gizarte-kokapen hobea duelako.

Gizakien gizarte funtzionamendu maiz “tribala”-k komunitateek euren munduari buruzko ikuspuntuaren (mundua kognitiboki eraikitzeke era)

inguruko ezagutzaren oinarri berdinak (“aztarna” bat) elkarbanatzera bultzatzen du, hau bere kultura eta jasotako transmisioen emaitza dena. Konformismoaren aurkako izaera ireki eta ekintzailea ikuspuntu bakar honen aurkako sendagaia da. Aitzitik, kontuz ibili behar da aurrekoa baino idolatria okerrago batean ez erortzeko: ohitura eta irekiera dialogian kudeatzea!

Sarritan, zientzia gogorak (edo zehatzak eta teknologikoak) eta bigunak (giza- eta gizarte-zientziak) oposatzea proposatzen da, parte-hartzaile batek, ostera, zientzia gogorretan ezagutzek duten izaera hauskorra azpimarratzen du (baita funtzionamendu modu efektiboetan oinarri ideologikoen presentzia ere). Beste parte-hartzaile batek Bruno Latourren gogoeta batez mintzo da, zeinek ondorengo dioen: eztabaida sozialak aurkezten dituen fenomeno bat beti alor zientifiko eta tekniko zein sozio-politikoei erreferentzia egingo die.

Ezagutzaren gizartearen helburua pertsona gehiago “ahalduntzea” izango litzateke. Hortaz, pertsona gehiagok parte hartzeko (adituak, erabiltzaileak, hiritarrak...) mikro-esparruak sortu beharko genituzke. Esparru hauek dinamizatzearen, Design Thinking-etik eratorritako metodoak interesgarriak izango lirateke. Gaur egin, zientzia profesionala argitalpenaren lasterketan sartuta dago (negozioa!). Denbora eman (“slow zientzia”) eta sortutako balio sozialaren inguruan gogoeta gehiago egin behar da, balio monetario eta “estatus zientifiko”-ari arreta urriagoa emanez.

Nahi dugun ezagutzaren gizartea pertsona askok parte hartuko luketen hori da, zeinean ingurumen-jasangarritasun handiko gizarte justua lortze aldera lan egingo liratekeen. Baina hau konplexua da, izan ere badago hasierako kostu bat instituzioek xurgatzen ez dakitena, instituzioek euren esparrua emateko edo gauzak beste era batean egiteko sakonki erreformatzeko intentziorik ez dute. Izatez, “path dependency” arazo batean datza. Azken finean, adituen eta espezializatuen gizarteari eta instituzionalizazioari loturiko (hitzaren zentzurik orokor eta globalizatzaileenean) gure mendebaldeko hezkuntza arrazionalista aldatzerakoan, erresistentzia ideologiko, kultural eta politiko erraldoiak topatzen ditugu. 2017ko udazkenean Baionan egingo den ondorengo saioan gai hauen inguruan egingo dugu gogoeta.